

## KODE DEONTOLOGIKOA (KD)

Kode deontologikoa jarduera profesionalerako gida orokor bat denez, ez ditu ekintza zehatzetako egoerak xehetasunez biltzen. Lanbide-oreka lortzeko asoziazionismoa, prestakuntza eta etika (errespetua, ongintza-ez gaizkintza, justizia), praktika egokiak aurrera eramanez. Azkeneko honen printzipioak D-N-en Kode Deontologikoan (KD) biltzen dira. Etika teoriko hau praktikara eramateaz arduratzen da kode deontologikoa.

Dietista-nutrizionista gizartearen elikadura egoki bat gomendatzeko gai den eta legalki aitortua den pertsona da. Hauek bete beharko dute AEND-k argitaratutako KD-a. Kode deontologikoaren arabera profesional hauek erantzukizunez, profesionaltasunez... jokatu beharko dute, banakoaren edo gizartearen osasuna edota bizi-kalitatea hobetzeko. KD asko daude munduaren inguruan, baina guztiak hauetan oinarritzen dira: Ongintza printzipioa eta kalterik ez egitekoa, autonomia-printzipioa eta justizia-printzipioa. AEDN-k argitaratutako KD-a lau printzipio nagusiz osatuta dago:

**Gizartearekiko erantzukizunei dagokienez** D-N profesional batek, babesa, osasuna sustatu eta ongizatea bermatuko ditu, beti ere legeria eta KD-a errespetatuz. Bere lana egiten ari diren eta profesionalak ez direnen aurka egin beharko du. Zintzo eta errespetuz jokatu behar du, engainurik eta iruzurrik egin gabe, banakoen balio eta beharrak errespetatuz. Bere funtzioa eta erantzukizunak ezin baditu bete, jardun profesionala utzi beharko du. Gainera, berdintasunez jokatu beharko du edozein pazienteren aurrean eta arauak eta legeak errespetu behako ditu.

**Zerbitzua jasotzen duten pertsonak** duintasunez, errespetuz, berdintasunez eta adeitasunez tratatuko ditu, Datuen Babeserako legea betez. Gainera, dietetika tratamenduak bezero bakoitzaren ulermen mailari egokituko da, beraiek honi buruzko erabakiak hartu ahal izateko eta hartzen dituzten erabakiak beti errespetatu beharko dira.

**Lanbidearekiko erantzukizunak** beteko dira, ebidentzia zientifikoan oinarrituz, eta momentu oro formatzen jarraituz, horrela gaitasunak eguneratuta eduki ahal izateko. Honetarako Profesionalki Elkargoan izena ematea komeni da. Informazioa fidagarria eskainiko du, inolako kalte pertsonalik eragin gabe eta iritzi ezberdinak onartuz.

**Kideekiko eta beste profesional batzuekiko erantzukizunerako** garrantzitsua da lankideen arteko diziplina eta errespetua, eta beste lankide baten iritzia eskatzean ebaluazio objektiboa egin beharko da. Gainera, lanbidea hobetzen ahaleginduko dira, eta horretarako kompetentzia desberdinekin (medikuak, biologoak...) lan egingo dute.

Beraz, orain arte esandako guztia betetzeko kode deontologikoa berrikusi, aldatu eta egokitu da, batzorde bat sortuz. Batzordeak esaten duena arauen balio berdina izango du.

Laburbilduz, Kode Deontologikoaren helburua profesionalen jokabidea gidatzea ebidentzia zientifikoz jokatzeke, eta profesionalak babestea da, sortu litezken arazoi profesionalki solbentatu ahal izateko eta profesionalak gidatzeko